

2019KO SOBERAKIN KOOPERATIBOAREN BANAKETA

Zer da soberakin kooperatiboa?

Kooperatibak bere jarduerari esker lortzen duen balioa da.

Jarduera kooperatibizatuaren sarreren eta kostuen arteko aldea da, zergak ordaindu eta Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiboko Funtsa hornitu ondoren gelditzen den hondarra.

Som Energia irabazi-asmorik gabeko kooperatiba bat denez gero, soberakin hori ez da bazkideen artean banatzen, Batzar Nagusiak onartu behar baitu soberakinaren banaketa.

Banaketa-proposamena

2019ko soberakina oso-osorik Kooperatibaren erreserben artean honela banatzea proposatzen da:

- **Nahitaezko erreserba-funtsa: 656.472 €**

Kooperatiba finkatzeko, garatzeko eta bermatzeko funtsa, nahitaez bete beharrekoa, uztailaren 9ko Kataluniako Kooperatiben 12/2015 Legearen arabera. Gutxienez, soberakin kooperatibo garbien % 20 eta kooperatibatik kanpoko mozkin garbien % 50 izan behar du.

- **Borondatezko erreserbak: 389.256 €**

Kooperatiba irabazi-asmorik gabeko sozietatea izaki, Nahitaezko erreserba-funtsetik edo kapitalizazio-erreserbatik kanpo gelditzen den mozkina Borondatezko erreserba-funtsean hornitzen da.

- **Kapitalizazio-erreserba: 21.283 €**

Guk bezala funts propioak modu jarraituan sendotzen dituzten enpresek egin dezaketen erreserba da. Sozietateen gaineko Zergan, oinarri ezargarriaren murrizketa dakar.